

Maitatzeko errazoiak badira  
zergaitik dabilta txispaz armatuak?

Maitatzeko errazoiak badira  
zergaitik urrunduak, galduak,  
saminduak, beartsuak, armatuak...?

Maitatzeko errazoiak badira...

Zer da alaitasuna?

Alaitasuna,  
oiñaze ta eriotzai kendutako unea.  
Alaitasuna,  
gutxitan izanen da anaitasuna.

Sutan goritutako ego-aizean,  
turut otsaren deira,  
illobiak zabalik.

*Otsalar*

## MIRARIA

Izerdi odoldua,  
arnasa larria  
ta gose bizia,  
ikusi dut,  
beartsuaren kopetan...

Ixi!

Ugarian igariz,  
irri-parrea  
ta urre dizdira,  
ikusi dut,  
ugazabaren jauregian...

Ixi!

Jaun eta jabe,  
ezpata zorrotzez,  
pake zaintzez,  
ikusi dut,  
Cartaginesa zaldian...

Ixi!

Akelar'go dantza  
uriko plazan?  
—lena gutxi bazan—  
ikusi dut,  
...bedinkatua itzalkipean...

Ixi!

Begiak dira mintzo...

Ixi ta ixi! Ago ixillik!

*Otsalar*

## BELEN ALDERA

Goazen, goazen  
gaur Belenera  
bake aldekoak,  
biotz-on gizonak.

Onez-onian  
eldu bazate,  
zabal zuentzat  
ateak daude.